

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Oloki eta Ezkabako tunelen arteko Iruñeko Ingurabidea bikoizteko proiektua onartu da behin betikoz

Obrako lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 4.265.606 euro da

Viernes, 24 de abril de 2015

Sustapen kontseilari Luis Zarraluquik Foru Agindu bat onetsi du; haren bidez, jendaurrean informatzeko fasea ebazten da, eta ondorengo eraikuntza-proiektua behin betikoz onartzen: ["Iruñeko Ingurabidea bikoiztea. Zatia: Oloki-Ezkabako tuneletako iparraldeko irteera"](#). Haren

lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 4.265.606,20 euro da, BEZa kanpo; horrekin batera, kaltetutako ondasunen eta eskubideen zerrenda ere onartu da.

Proiektu honen helburua Iruñeko ingurabideko bikoizketa osorako azken fasea da; hala, Iruñerriko ingurabideko galtzada bikoizteko bidea izango da iparraldeko lotunearen, Noainen, eta Ezkabako tuneletako iparraldeko irteeraren artean, N-121-A errepidean, Iruña-Behobia. Onartu ondoren, proiektua dagoen aurrekontuaren zain geratuko da.

Ibilbidea Ekialdeko ingurabideko zatiarekin bat egiten duten puntuan hasten da, Olokitik Itaroako glorietara doana; puntu hori Arga ibaiaren gaineko zubiko mendebaldeko estribuan dago. Galtzaden zabaldua bat da bereziki, eta luzera guztian hiru errei izatetik lau izatera pasako da. Arreko zubia zabaltzeak errepideko plataforma zabaltzea ere baldintzatzen du bi ertzetan. Arreko glorietan sarbideak aldatzen dira enbor nagusiko lau erreietako antolaketa berriari egokitzeko, baina bere oin orokorra funtsean aldatu gabe. Arreko glorietatik, egungo N-121-A errepidearen ibilbidea jarraituz Arreko saihesbidetik, Ezkabako tuneletako irteerako glorietaren aurreko zubira iristen da, galtzada eskuinaldetik zabalduz.

Abuztuaren 20ko 86/2009 Foru Aginduaren bidez, "Iruñeko Ingurabidea bikoiztea. Zatia: Oloki-Ezkabako tuneletako iparraldeko irteera" proiektua behin-behineko onartu zen, eta jendaurrean jarri zen. Foru Agindu hori [2009ko irailaren 7ko NAOean argitaratu zen \(110. zenbakia\)](#).

Jendaurrean jarri zen aldian zehar, alegazio batzuk jaso ziren, ingurumen-mailakoak, batez ere. Alegazioak aztertu eta aintzat hartu ondoren, proiektua aldatu da.



Iruñeko Ingurabideko zati bat.

2012ko abuztuan, jendurreko izapidea ondoriorik gabe utzi zen, proiektua behin-behinekoz onetsi zen, eta jendurreko beste informazio-denbora bat ireki kaltetutako ondasun nahiz eskubideen ondorioetarako eta ingurumen-eragina ebaluatzeko ondorioetarako. [Foru Agindua 2012ko abuztuaren 24ko NAOzen argitaratu zen \(167. zenbakia\)](#).

2015eko urtarrilean, Ingurumen Eragineko Adierazpena egin zen ondorengo eraikuntza-proiektuari dagokionez: "Iruñeko Ingurabidea bikoiztea. Zatia: Oloki-Ezkaoko tuneletako iparraldeko irteera". Jendurreko informazio-denboraren fase berrian beste bost alegazio jaso dira.